

# ORDENANTZA FISKALA, EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO ZERBITZUAREN TASAK ARAUTZEN DITUENA

## **OINARRIA**

1. artikulua. Tasa hauek ezarri dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

## **ZERGAPEKO EGINTZA**

2. artikulua. Ordenantza honetan araututako tasaren zergapeko egintza: Udalean ezkontza zibilen inguruan egiten diren jarduketak guztiak, hala nola, gobernu espedientea tramitzeko jarduketak, ospakizunaren aurrekoak eta ondokoak, egintzaren antolaketa, behar diren pertsonak eta baliabide materialak barne, eta, zerbitzua behar bezala emateko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren gainerako guztiak.

## **TASAREN SORTZAPENA**

3. artikulua. Tasa eta, beraz, ordaindu beharra sortzen da zerbitzua egiten hasten denean, hau da, interesdunek ezkontzaren eguna eta ordua zehazteko eskabidea aurkezten duten unean.

Baldin eta, eskaera aurkeztu ondoren eta ezkontzaren data zehaztu baino lehen, eskatzaileek atzera egiten badute eta zerbitzua utzi, ordenantza honetako tarifen eranskinean azaltzen den zenbatekoaren %50 itzuliko zaie ofizioz.

## **SUBJEKTU PASIBOAK**

4. artikulua. Zibilez ezkontzen diren pertsonak dira subjektu pasiboak, eta biak Udalaritasa ordaintzera behartuta daude solidarioki.

## **KUDEATZEKO ARAUAK**

5. artikulua. Autolikidazioaren araubidea ezarri da tasa hau kobratzeko kudeaketan. Zerbitzua emateko eskabidearekin batera eginen da dagokion diru-sarrera. Ez da tramitatuko tasa ordaindu izana frogatzen ez duen eskabiderik.

## **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenbizikoa.—Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, ordenantza fiskal orokorrari eta aplikatzekoak diren xedapen guztiei jarraituko zaie.

Bigarrena.—Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera behin betiko onetsi ondoren, ordenantza fiskal honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko guztiak izanen ditu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean testua oso-osorik argitara emandakoan.